

OSOGUNEKO ERAKASKERA.
1998-99ko IKHASURTEA.

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS. GAIA.

1. Nork edo zerk ukhan zuen azken hitza?
2. Erran zage zer izan zen Lohilakaten azken balentzia.
3. Zer lathakatu zen Lohilakaten?

LOHILAKAT 5

②

—Horra Lohilakatea!... Eta huna Lohilakat!... Zer behar duzue haren ganik?...

rats hartan, Lohilakatean etzan zen oraino Lohilakat, bizkar-hezurreen halako ikhare hotz batekin itzuli ziren jandarmak, Lohilakatera zertara joanak ziren Lohilakati erran ere gabe...

Bainan, legeak azken hitza bere behar bethi eta, uste gabetarik edo bertzela, preso altxatu zuten Lohilakat! Zabaltzako zubi mehar batean iragaitearekin, diote Lohilakatek bere bi jandarmak harturik, batto esku bakotxean, manatu ziotela burdinak khen ziozkaten, edo biak aurthikitzen zituela urerat. Bai eta hek zalukara libratu gure gizona!...

Zorigaitzez, azkenean, amor eman behartu zitzaion Lohilakat gaizoari. Eta ordutik hasi ziren haren nahigabeak. Gobernioa, hari eta haren onthasuneri, lapharra bezala lothurik, errekan ezarri zuen bere etxalde ederra, eta, orai hogoi'ta bost bat urthe, hiru hogoi eta hamabost urthetan, etxeko-nausi ttipi hil izan zen Lohilakat haundia. Eta behartu zitzaion ez baitzituen zeruko atheak makilarekin hautsi behar ukhan, zeru hartan sartzeko, ezen, aspaldiko urtheetan jada, lege nek khendua zioten bere makila!

Bainan, zorionez, makilarik gabe sarrarazi omen zuen Jon Domi Petri haundiak, Eskualdun gehienak oli dituen bezala, eta zuek eta ni, agian, egun batez sarraziko gaituen bezala!

③ ADITZ IKHASKUNTZA.

31. Manatu ziotela 32. Khen ziozkaten.
33. Behartu zitzaion 34. Sarraziko gaituen.

31,32 UKAN. Conjugaison à dble cplt. Indicatif Imparf.

CDS	Hari = à lui. CTS	CDP	Hari = à lui CTS
Hek nion	= je le lui avais	niozkan	= je les lui avais niozkien
Hek hion	= tu le lui avais	hiozkan	= tu les lui avais hiozkien
Zuek zinion	= vs le lui aviez	zinozkan	= vs les lui aviez zinozkien
Harek zion	= il le lui avait	ziozkan	= il les lui avait ziozkien
Guek ginion	= ns le lui avions	ginozkan	= ns les lui avions ginozkien
Zuek zinioten	= vs le lui aviez	zinozkaten	= vs les lui aviez zinozkien
Heiek zioten	= ils le lui avaient	ziozkaten	= ils les lui avaient ziozkien

33 IZAN. Régime Indirect Indicatif Imparfait Singul.

Hura zen = il était

Hura (lui) zitzaitan	à moi
" zitzaizun	à vous
" zitzaion	à lui
" zitzaigun	à nous
" zitzaizuen	à vous
zitzaion	à eux

33 bis - IZAN. Régime Indirect Indic. Imparf. PLURIEL

Gue ginien = nous étions

Gue (nous) gintzaizkizun	(à vous) = nous vous étions
" gintzaizkion	(lui) = nous lui étions
" gintzaizkizuen	(à vous) = nous vous étions
" gintzaizkien	(à eux) = nous leur étions

Zuek zinioten = vous étiez

Zuek (vous) zintzaizkitaten	(à moi) = vous m'étiez
" zintzaizkioten	(à lui) = vous lui étiez
" zintzaizkiguten	(à nous) = vous nous étiez
" zintzaizkiaten	(à eux) = vous leur étiez

Hek ziren = ils étaient

Hek (eux) zitzaizkitan	(à moi) = ils m'étaient
zitzaizkizun	(à vous) = ils vous étaient
zitzaizkion	(à lui) = ils lui étaient
zitzaizkizun	(à nous) = ils nous étaient
zitzaizkizuen	(à vous) = ils vous étaient
zitzaizkien	(à eux) = ils leur étaient